

[EUS/ESP] Lecciones del ciclo político-electoral 2024

PETRI REKABARREN :: 01/08/2024

2024ko ziklo politiko eta hauteskunde zikloari buruzko irakasgaiak

[EU]

2024ko otsailetik uztailera bitarteko hauteskunde zikloak -Galiza, Baskongadak, Katalunia, Europar Batasuna, Britainia Handia eta Frantziako estatua- zuzenean nahiz zeharka du Euskal Herriarekiko lotura, eta bi bide nagusi har litezke ziklo horren emaitzak aztertzeko. Bide bat da -eta hauxe dago hedatuen- hertsiki erreparatzea emaitzek politikan-legebiltzarretan izango dituzten ondorioei, eserleku aldaketei eta horien arabera hautsi edo sor litezkeen aliantzei. Beste bidea -gutxiengo txiki batena-, berriz, honetan datza: aztertzean zer ondorio sozioekonomikok, politikok eta militarrek iraungo duten funtsean beren horretan, hauteskunde emaitzak gorabehera. Bide bakoitzak ikuspuntu jakin bati erantzuten dio; alegia, bi ikuspuntu desberdin dira, desberdinak eta are elkarri kontrajarriak ere, ikuspegi erreformistari ala ikuspegi iraultzaileari jarraitzen zaion.

Indar erreformistek -subiranistek nahiz bestelakoek- beren boto kopuruari eutsi izana edo boto gehiago lortu izana egiazko arriskua da imperialismoarentzat; izan ere, guztiak aitor-tzen dute, nola edo hala, modu pasiboan nahiz ageriki, kapitalaren eta NATOraren irrazionaltasun militarista eta autoritarista. Ez dira ari, ordea, kalean beren oinarriak helburu iraultzaileen alde mobilizatzen, ezta helburu horiek pazientziaz eta modu pedagogikoan esplikatzen ere: ez ERC, ez BNG, ez EH Bildu... Imperialismoa, bestalde, ez dago kezkatuta EBko eskuin muturrarekin eta faxismoarekin, badakielako, jakin ere, une erabakigarria iristean itsu-itsuan men egin eta beteko dituztela bere eskakizunak, edo eskakizun horiek are gehiago sendotu. Kontua da itxura «demokratiko» pixka bat emateko premia duela, oraingoz, gerra sozial eta militarreko neurriak aplikatu ahal izateko, erresistentzia gutxiagoz eskuin muturraren kasuan eta fanatismoz faxismoaren kasuan.

Ikuspegi erreformistak dio «demokrazia» egonkortu egin dela, oro har, Europar Batasunean: sendotu egin dira bloke subiranista galegoa eta baskongadoa, eta, subiranismo katalanari dagokionez, atzera egin duen arren, latente eusten dio bere indarrari; EBn, eskuin muturraren eta faxismoaren aurrerapena, egiazkoa, geldiarazi egiten dute beren barne zatiketek, erreformisten eta zentristen arteko akordioek eta nazioz gaindiko kapitalaren itzalak, zeina oraingoz baitago Etxe Zuriaren eta hark Bruselan eta Londresen dituen peoien gaur egungo interesen mende. Botere hori itzalean dago, bai, baina guztian erabakigarria da, eta indartu egin da, gainera, britainiar laboristen garaipenarekin eta eskuin mutur frantsesaren geldialdi eta «herri fronte berria» deritzonaren erreformismoaren garaipenarekin.

Esaten digute amaitzean den hauteskunde zikloak -oraindik garrantzi handiko hauteskundeak gelditzen diren arren, hala nola yankiena, eta beste zenbait, hain esanguratsuak ez direnak- ugaritu egiten dituela «Mendebaldeko demokrazia» munduan barrena hedatzeko aukerak; hain zuzen ere, noiz eta erregimen autoritarioak -Errusia, Txina, Iran, Siria, Venezuela, etab.- hari erasoka ari zaizkionean, BRICSi, «multipolaritate» deritzonari eta hainbat

tokitan sortzen ari diren estatu arteko aliantzei beraiekin bat egin dezaten presioa eginez, beren garroak hedatu nahian. Ikuspuntu horretatik, EBko klase esplotatuek eta langile nazio zapalduok erremedio bakarra dugu arriskuan dagoen «Mendebaldeko demokrazia» horren defentsara bideratzea gure oraina eta etorkizuna, kosta ahala kosta -gerra eta «soldaten sakrifizioa» tartean egonik ere - .

Hemen, ikuspuntu iraultzailea geure egiten dugu, eta, ikuspuntu horretatik, amarrua da «hauteskunde zikloa» deritzon hori: tranpa bat, edo labirinto bat, nahiago bada, esplotatuen borrokak alienatzen eta geldiarazten dituena. Ez dugu ukatzen hauteskunde borrokaren garrantzia, oro har; eta irizten diogu askapenerako eraginkorra izango dela, betiere, langile-riak erakunde horietatik kanpo duen indar praktikoaren eta independentziaren arabera: inoiz ez da jarri behar kaleko mobilizazioa «joko parlamentarioaren» pean; aitzitik baizik, «joko» horrek beti egon behar du masa mobilizazioaren pean, «jokoa» arma iraultzailea bihur dadin erakunde burgesetan, kanpoko klase politikaren independentziak gidatutako arma. Printzipio ukaezin horretan oinarrituta beharra dago erakunde burgesetan parte hartu ala ez, eta nola eta zertara bideratzen den partaidetza hori edo abstentzio hori erakunde bakoitzean, batzuetan edo guztietan.

Irizpide politiko estrategiko hori are beharrezkoagoa da burgesiak zenbat eta irmoago kontrolatu bere erakundeak, erakunde horiek botere errealek, eraginkor guztiaz hustuz, bizirau-penari dagokion guztian nagusiki: produkzio indarren, Estatuaren, gudarostearen, politika sozioekonomikoaren eta kanpo politikaren jabetza pribatua. Gainerako erakundeak ez zaizkio eskuragarri proletariotzari inola ere, eta, are gutxiago, zapalkuntza nazionala gertatzen den kasuetan; baina kamuflatu daitezke halako berniz «demokratiko» arin batez, zeina des-agertzen baita burgesiak eta Estatu okupatzaleak hala erabaki orduko. Ukaezina da, eta nabarmena, duela mende herenetik gutxienez, Mendebaldeko burgesiak duela boterearen kontrol absolutua, eta, hala, barkatu ezinezko iruzurra da bakegintzatik eta erregu parlamentario hutsetatik sozialismorantz egin daitekeela dioen propaganda erreformista oro; batez ere, nazio zapalduetan etengabe errepikatzen bada.

Baina, has gaitezen zehazten: 2007an hasitako krisi handia, 2020an larritua eta 2022/2023az geroztik maila kualitatiboan orokortua, II. Mundu Gerraz geroztik inoiz ez bezala ugaritutako indarkeriek eta gerrekin, erronka berrien iturri da, eta euskal herri langilea duela urte gutxitatik hona hasi da erronka horiei erantzuteko antolaketa molde ego-kiak lantzen: gaur egungo esplotazio, kontrol eta errepresio moldeei aurre egiteko modua emango dioten bitartekoak lantzen. Har dezagun kontuan Estatu imperialista handiak, nagusiki yankia, goraino zorpetuta daudela eta maileguz bizi direla, etorkizuna irentsiz. AEB, Alemania, Britainia Handia, Frantziako eta Espainiako estatuak, etab. -alegia, imperialismoaren muina- desindustrializaziorako joeran murgilduta daude, bereziki adar oso produktiboetan, eta ezinezkoa da haien balioa konpentsatzea zerbitzuak ugarituz -aberasteko bide zinez ziurgabea eta atzerriaren mendekoa, baita langile klaseentzat oso esplotatzalea ere - .

Gainera, mundu mailako merkatuan imperialismoaren lehiakortasunari kalte egiten dion ahultze industrial horrek, berarekin dakartzanak, halaber, dolarra ahultzea eta Estatuak Mendebaldetik at elkarren artean koordinatzea, orobat egin dio kalte bi arlo erabakigarri hauetan: arma lehian eta lehia teknozientifikoan, non abantaila hartzen ari baitira «Mendebaldearen etsaiak». Arlo erabakigarriak dira zentzu guztietan, ikusirkik munduak nola duen

baliabide gero eta urriagoekiko gero eta mendekotasun handiagoa. Mendebaldearen birmili-tarizazio intentsiboak, beraz, imperialismoaren hiru behar itsuri erantzuten die: irabazien batez besteko tasaren parte bat berreskuratzea, neokeynesianismo militar eroaren bidez; barne kontrola eta errepresioa areagotzea; eta gerra lokalak eta erregionalak irabaztea, beste gerra orokorrago baten aurretik.

«Demokrazia» parlamentarioak ez du gelditu irrazionaltasun burugabeenerako hondoratze hori: ez du nahi izan, ezin izan du eta ez du asmatu nola. Burgesiak are asmatu murriztuko ditu soldatak, gastu publikoak eta gizarte laguntza, zeharkako zerga gehiago ezarriko ditu, etab., beste erremediorik ez daukalako eta halaxe eskatzen dutelako NDFk, MBk, Banku Zentralek eta, bereziki Basileako Bankuak, botere ezkutuetan ezkutuena baina zeinaren «aholkuak» baitira ia nahitaez betetzeoak, haien funtzioa baita jabetza pribatua azken muturreraino babestea, NATOrerin batera. Gauzek okerrera egin dezakete, ordea, baldin eta 2024aren amaieran D. Trump garaile ateratzen bada eta aurrera eramatzen badu bere mehatxua: EBri eskatzea ehun mila milioi dolar jartzeko -100.000.000.000-, errepublikano yankien arabera horixe baita EBk NATOren gastuagatik AEBri zor dion kantitatea. Errusia-ren kontrako gerra ukrainaziak -aurrerago Txinako Herri Errepublikari1 erasotzeko esperi-mentu eremua- gero eta diru eta bizitza gehiago eskatzen ditu; baita Gazaren kontrako genozidio sionistak ere -Libanoren, Siriaren eta, azkenik, Iranen kontrako gerrarako esperi-mentu eremua - .

Nondik atera daiteke hainbeste baliabide, kontuan hartu gabe orain premiazkoak diren bes-te gastu batzuk, hala nola zor izugarria murriztea, lehiakortasuna eta lanaren produktibita-tea sendotzea eta abar? Lau bide baino ez daude: bat, barne esplotazioa biderkatzea; bi, harrapaketa imperialista areagotzea; hiru, inbertsio masiboak egitea I+G+Bn, soldatak mer-katuz gehiago irabazteko; eta lau, herritar langileak fanatizatzea, onar dezaten kanpo nahiz barne kanoien bazka izatea. Ildo horretatik, «ziklo politiko» honek gure klase nazio askape-nerako baliozko zerbait erakutsi badigu, hauxe erakutsi digu: imperialismoak ezin hobeki kontrolatzen dituela erakunde parlamentarioak, arestian azaldu bezala; erakunde horiek ez daukate inolako ahalmenik imperialismoaren planak deuseztatzeko, eta, are gutxiago, herriak haien kontra mobilizatzeko.

Hortaz, euskal herri langilearen independentzia politiko estrategikoa sendotu behar dugu; eta, horretarako, antolaketa molde egokiak geureganatu behar ditugu, baita zenbait auziri buruzko gogoeta kritikoa egin ere, honako hauei buruzkoa batik bat:

Bat, euskal herri langileak 1890etik 2024ra jorratutako 134 urteko borrokan ikasitako ira-kaspen eta esperientzia baliotsuak nola aplikatu gaur egungo baldintzetan. Borroka ibilbide horretan, arreta berezia jarri behar dugu 1959tik 2011ra bitarteko fasean -2011n jo zuen goia garai bateko ezker abertzalearen subiranismo erreformistarako birak-, eta, are arreta handiagoa, une honetako fasean, 2011tik gaur egunera artekoan, zeinetan jada eztabaidea-zina baita independentismo sozialista pixkanaka suspertzen ari dela.

Bi, fase horietan, bereziki erreparatu behar zaie garaian garaiko euskal kapitalismoa eta, ezinbestean, herri langilearen klase borroka kolpatu eta modelatu izan duten krisi sozioeko-nomiko eta politiko-militar handien eraginei. Adibidez, honako krisi hauenei: Spainiako estatuak XIX. mendearen amaieran Kuban eta Filipinetan izandako porrotaren ondoriozko

krisi politiko-militar eta ekonomikoa; imperialismo frantsesaren 1914ko egiturazko krisia; 1923-31ko espanyiar diktadura militarra eta, bereziki, 1929ko krisia, hark bide eman baitzien faxismoei, frantziar-espanyiar fronte popularrei eta Euskal Herriko 1936-1945 arteko gerra luzeari eta haren orotariko epe luzeko ondorioei; 68ko maiatzeko eta 1973-78ko krisiei, Euskal Herriaren gaineko dominazio frantses-espaniarra salbatu baitzuten gorabeherak gorabehera; eta 2007ko krisia, gaur eguneraaino larritua.

Hiru, gure historia soziala eta memoria militarra gure oraingo premien arabera berreskutzatzeko lan horretan, lau arlo erabakigarri kontuan hartu behar ditugu: bat, herri langilearen, emakume eta gazteria langileen eta lan indar migratzailearen osaera klasistaren aldaketak, eta frakzio burgesen eta burges txikien konposizioarenak. Bi, burgesia kolaboracionistak eta alderdi eta sindikatu estatalistek babesten duten errepresio eta kontrainsurjentzia sistema frantses-espaniarren eta imperialistaren aldaketak; xeheki, euskararen eta kultura herritar-langilearen eta haren osagai askatzaileen kontrako gerra politiko-kulturalaren aldaketak. Hiru, lan indarraren produkzio eta erreprodukzio arauen eta diziernen aldaketa, bai zuzenean nahiz zeharka -«denbora librea», «aisia», «atsedena», etab. deritzotenean- esplotatutako denboran, bai esplotazio fase bakoitzari egokituriko egitura psikiko alienatuen eta otzanen sorreran. Eta lau, kultura industria imperialistaren- eta frantses-espaniarren- efektuak, ideologia burgesaren merkatura jaurtitzen baititu moda intelektual ergel eta iragankorrik, berehala ordezkatzen dituztenak beste moda are hutsalagoek, biziki antimarxistek.

Lau, ikusitakoaren argitan, jarraipena egitea 60ko hamarkadatik sortutako kontraesan berriei -orduan agertzen hasi ziren kapitalaren metaketa hedatua geldiarazten duten benetako mugak-, agerian uzten baitituzte garai hartan sortzen hasi berriak ziren esplotazio berriak, erreformismoak epelki eta independentismo sozialistak modu erradikalean aurkaturuak: esplotazio patriarkala². Feminismo burgesez eta emakumearen askapenerako borroka sozialistaz dihardugu, eta aurrerantzean erreformismo ekologistaz vs orain ekokomunismoa deritzonaz; okupatzaileek drogak suntsitze arma gisa erabiltzearen kontrako borrokaz; euskal herri kirolaren aldeko borrokaz; amnistiaaren eta askatasunen aldeko borrokaz; bertsolritzaren sormen indar kritiko izugarriaz eta ikastolen autoantolaketaz, haien pedagogia herritarraz eta progresistaz; solidaritate internazionalista eta antiimperialistaz... eta horrela, zerrenda ia amaigabe bat osatzeraino.

Herri mugimenduak -ezker abertzalearen lorpen ikusgarrien gakoetako bat, beren burua komunistatzat duten iraultzaile batzuen dogmatismo miopeak laidoztatzen eta gutxiesten dituen lorpen horien gakoetako bat- orain izan beharko lukeenari buruz ari gara, hain zuzen ere. Eta orobat ari gara nazio askapenerako sindikalismo soziopolitikoak bete beharko lukeen paperaz: kapitalismoaren kontrako eta Euskal Estatu Sozialistaren aldeko borroka erradikalaren kontzientzia sozialista sendotzea proletariotzan. Ez dugu ahaztu behar, halaber, amnistiaaren eduki erradikala, ezta abangoardiako erakunde iraultzailearen papera ere, beharrezkoa gaur egungo imperialismoari aurre egiteko.

Eta bost: garai hauetan sakoneko aldaketa asko gertatu dira mundu mailan, baina kapitalismoak berdina izaten jarraitzen du funtsean; kontraesan gehiagorekin eta ankerragoa, baina funtsean berdina. Esplotazio imperialista hedatu eta areagotu egin da, baina, aldi berean, gero eta erresistentzia eta alternatiba serioagoekin eta itxaropentsuagoekin topo egiten ari

da; hainbeste, non biderkatzen ari baita alternatiba horien kontrako biolentzia imperialista. Etengabe hazten ari den erresistentzia koloreaniztun horrekin uztartu behar dugu gure independentismo sozialista.

Bide luzea dugu aurretik, baina hobetzen eta aurrera egiten ari gara ziklo politiko-hauteskunde ziklo honen irakaspenak ikasiz, zeinak laburbil baitaitezke Aurrera bolie esapi-de hartan.

2024ko uztaikaren 24an

[ES]

Hay dos grandes formas de analizar los resultados del ciclo electoral que ha tenido lugar entre febrero y julio de 2024 -Galiza, Vascongadas, Catalunya, Unión Europea, Gran Bretaña y Estado francés- directa e indirectamente relacionado con Euskal Herria. Una, la inmensamente mayoritaria lo que hace es limitarse exclusivamente a los efectos político-parlamentarios de los resultados, a los cambios en los escaños y en las alianzas que pueden romperse o realizarse a raíz de ello. Otra, la muy minoritaria, estudiar los previsibles efectos socioeconómicos, políticos y militares que se mantendrán en lo básico a pesar de esos resultados electorales. Las dos formas responden a dos visiones diferentes e incluso contrarias según la perspectiva reformista o revolucionaria que les guíe.

Ninguna de las fuerzas reformistas, sean soberanistas o no, que han logrado ampliar o mantener sus votos supone peligro alguno para el imperialismo: todas ellas aceptan de algún modo, pasiva o abiertamente, la irracionalidad militarista y autoritarista del capital y de la OTAN. Ninguna está movilizando a sus bases en las calles para defender objetivos revolucionarios, ni tampoco está explicándolos paciente y pedagógicamente: ni ERC, ni BNG, ni EH Bildu... El imperialismo tampoco está preocupado por la extrema derecha y el fascismo en la Unión Europea porque sabe que, en el momento decisivo, aceptarán y cumplirán sus exigencia con los ojos cerrados, por no hablar de que las reforzarán. Lo que ocurre es que, por ahora, necesita un poco de apariencia «democrática» para aplicar sus medidas de guerra social y militar con menos resistencias en la primera y con fanatismo en la segunda.

Desde las fuerzas reformistas se dice, a grandes rasgos, que la «democracia» se ha estabilizado en la Unión Europea: el bloque soberanista galego y vascongado se han fortalecido, y aunque el soberanismo catalán ha retrocedido mantiene su fuerza latente; en la Unión Europea el avance de la extrema derecha y del fascismo, real, se ve contenido por sus divisiones internas, por los acuerdos entre reformistas y centristas y por el poder en la sombra del capital transnacional que por ahora obedece a los intereses actuales de la Casa Blanca y de sus peones en Bruselas y Londres. Este poder en la sombra, pero determinante en todo, ha sido reforzado por la victoria laborista británica y por el parón de la extrema derecha francesa unido a la victoria del reformismo del llamado «nuevo frente popular».

Se nos asegura que el ciclo electoral casi acabado, aunque quedan por realizarse elecciones importantes como la yanqui y otras menos trascendentales, aumenta las posibilidades de extender la «democracia occidental» por el mundo precisamente cuando está siendo atacada por regímenes autoritarios -Rusia, China, Irán, Siria, Venezuela, etc.-, que aprovechan la crisis socioeconómica intentan extender sus tentáculos presionando a los BRICS, a la

llamada «multipolaridad» y al resto de alianzas interestatales que crecen en muchos sitios, para que se unan a ellos. Desde esta perspectiva, las naciones trabajadoras oprimidas y las clases explotadas en la Unión Europea no tenemos más remedio que confiar nuestro presente y nuestro futuro a la defensa a cualquier precio, incluida la guerra y el «sacrificio salarial», de esa «democracia occidental» en peligro.

Desde la perspectiva revolucionaria, que aquí asumimos, el llamado «ciclo electoral» es una trampa, un cepo o un laberinto, como se quiera, que aliena y paraliza las luchas de los y las explotadas. No negamos la importancia de la lucha electoral en general, decimos que su efectividad liberadora depende siempre de la fuerza práctica y de la independencia política obrera fuera de esas instituciones: nunca hay que supeditar la movilización en la calle al «juego parlamentario», sino, al contrario, supeditarlo a la movilización de masas, haciendo que el «juego» se transforme en arma revolucionaria dentro de las instituciones burguesas, arma dirigida siempre desde la independencia política de clase exterior. Es en base a este principio irrenunciable desde el que hay que analizar si se participa o no en las distintas instituciones burguesas, y cómo y para qué se orienta esa participación o esa abstención en cada una de ellas, en algunas o en todas.

Este criterio político estratégico es tanto más necesario conforme la burguesía termina controlando férreamente sus instituciones, vaciándolas de cualquier poder real, efectivo, sobre todo en aquello que atañe a su supervivencia: la propiedad privada de las fuerzas productivas, del Estado, del ejército, de la política socioeconómica y de la política exterior. El resto de instituciones no son en modo alguno accesibles al proletariado y menos en los casos de opresión nacional, pero sí pueden ser camufladas con un débil barniz «democrático» que desaparece cuando la burguesía y el Estado ocupante lo deciden. El control absoluto del poder por la burguesía occidental es incuestionable y manifiesto desde hace al menos un tercio de siglo, así que cualquier propaganda reformista acerca de que se puede avanzar al socialismo desde el pacifismo y las rogativas parlamentarias es un engaño imperdonable, en especial cuando se repite a diario en las naciones oprimidas.

Pero, para ir precisando, la gran crisis iniciada en 2007, agravada en 2020 y generalizada a un nivel cualitativo desde 2022/2023, con el incremento de violencias y guerras en una cantidad desconocida tras la Segunda Guerra Mundial, supone retos nuevos para los cuales el pueblo trabajador vasco ha empezado a dotarse de los medios organizativos adecuados justo hace pocos años, medios que le permiten enfrentarse a las actuales formas de explotación, control y represión. Tengamos en cuenta que los grandes Estados imperialistas, sobre todo el yanqui, están endeudados hasta las cejas o más, que viven de prestado, comiéndose el futuro. Estados Unidos, Alemania, Gran Bretaña, Estados francés y español, etc., o sea el núcleo del imperialismo, sufren una tendencia hacia la desindustrialización en las ramas altamente productivas de valor imposible de compensar con el aumento de los servicios, una forma de enriquecimiento insegura y dependiente del exterior, así como muy explotador para las clases obreras.

Además, a este debilitamiento industrial que mina la competitividad del imperialismo en el mercado mundial, que facilita a su vez el debilitamiento del dólar y la coordinación de Estados al margen de Occidente, también le merma en dos áreas decisivas: la carrera armamentística y la tecnocientífica en las que los «enemigos de Occidente» van tomando ventaja. Son

decisivas en todos los sentidos al ver la dependencia imparable del mundo hacia los recursos cada vez más escasos. La remilitarización intensiva de Occidente responde, pues, a tres necesidades ciegas del imperialismo: recuperar parte de la tasa media de ganancia mediante el neokeynesianismo militar desbocado, aumentar el control y la represión interna, y ganar guerras locales y regionales como antesala de otra más general.

La «democracia» parlamentaria ni ha querido, ni podido ni sabido detener esta caída en la irracionalesidad más desquiciada. Las burguesías aumentarán los recortes salariales, reducirán gastos públicos y ayudas sociales, impondrán más impuestos indirectos, etc., porque no tienen más remedio y porque así lo exigen el FMI, el BM, los bancos centrales y en especial el Banco de Basilea, poder oculto donde los haya, pero cuyos «consejos» son casi de obligado cumplimiento por su función de salvaguarda última de la propiedad privada, junto a la OTAN. Pero la cosa puede empeorar si gana Donald Trump a finales de 2024 y lleva a cabo su amenaza de exigir a la Unión Europea el desembolso de cien mil millones de dólares -100.000.000.000- que los republicanos yanquis han calculado como la cantidad que debe la Unión Europea a Estados Unidos por el gasto, no pagado, de la OTAN. La guerra ucronazi contra Rusia como campo de experimento para la posterior agresión a China Popular exige más y más dinero y vidas, y el genocidio sionista contra Gaza como campo de experimento para la guerra contra el Líbano, Siria y por último contra Irán, también.

¿De dónde pueden salir tantos recursos, sin considerar ahora otros gastos urgentes como el de reducir la gigantesca deuda, reforzar la competitividad y la productividad del trabajo, etc.? Solamente hay cuatro vías: una, multiplicar la explotación interna; dos, reforzar el saqueo imperialista; tres, invertir masivamente en I+D+i abaratando los salarios para aumentar la ganancia y, cuatro, fanatizando a la población obrera para que acepte ser carne de cañón interna y externa. En este sentido, si algo válido para nuestra liberación nacional de clase ha enseñado este «ciclo político» es que el imperialismo controla perfectamente las instituciones parlamentarias como hemos explicado anteriormente, que en realidad no tienen ninguna capacidad de anular sus planes y menos aún de movilizar a los pueblos contra ellos.

Por tanto, debemos reforzar la independencia política estratégica del pueblo trabajador vasco y para ello debemos dotarnos de métodos organizativos acordes, a la vez que debemos reflexionar críticamente sobre algunos problemas, entre los que destacamos los siguientes:

Uno, cómo aplicar en las condiciones actuales las valiosas lecciones y las experiencias aprendidas durante los largos 134 años de lucha del pueblo trabajador vasco, desde 1890 hasta 2024, dentro de los cuales debemos detenernos con especial atención en la fase que va de 1959 a 2011 cuando culmina el giro al soberanismo reformista de la antigua izquierda abertzale y, con más interés aún, en la fase presente, la que va desde 2011 a hoy, en la que ya es incuestionable la progresiva recuperación del independentismo socialista.

Dos, dentro de estas fases hay que prestar especial atención a los efectos de las grandes crisis socioeconómicas y político-militares que han golpeado y modelado el capitalismo vasco e inevitablemente la lucha de clases del pueblo trabajador tal cual existía en cada uno de esos períodos. Por ejemplo, la crisis político-militar y económica provocada por la derrota del Estado español en Cuba y Filipinas de finales del siglo XIX; la crisis estructural del impe-

rialismo francés en 1914; la crisis de 1921, la dictadura militar española de 1923-1931 y sobre todo la crisis de 1929, que da paso a los fascismos, a los frentes populares franco-españoles y a la larga guerra en Euskal Herria de 1936-1945 con sus prolongados efectos en todos los sentidos; las crisis del mayo 68 y de 1973-1978 que con sus altibajos salvan la dominación franco-española sobre Euskal Herria y la crisis de 2007 agravada hasta ahora mismo.

Tres, a lo largo de esta recuperación de nuestra historia social y memoria militar a la luz de nuestras necesidades presentes, debemos hacer hincapié en cuatro áreas decisivas: una, los cambios en la composición clasista del pueblo trabajador, de la mujer y de la juventud trabajadora y de la fuerza de trabajo migrante, así como de la composición de las fracciones burguesas y pequeño burguesas; dos, los cambios en los sistemas represivos y de contrainsurrección franco-españoles e imperialistas apoyados por la burguesía colaboracionista y por los partidos y sindicatos estatalistas, deteniéndonos minuciosamente en los cambios en la guerra político-cultural y económica contra el euskara y la cultura popular-trabajadora con sus componentes liberadores; tres, los cambios en las disciplinas y normas de producción y reproducción de la fuerza de trabajo tanto en el tiempo explotado directo e indirecto, lo que llaman «tiempo libre», «ocio», «descanso», etc., como en la creación de estructuras psíquicas alienadas y sumisas adecuadas a cada fase de explotación; y, cuatro, los efectos de la industria cultural imperialista, además de la franco-española, lanzando al mercado de la ideología burguesa modas intelectuales fatuas y fugaces rápidamente desplazadas por otras más vacías aún, rabiosamente antimarxistas.

Cuatro, a la luz de lo visto, hacer un seguimiento de las nuevas contradicciones que aparecen a partir de la década de los años sesenta, cuando empiezan a aparecer las verdaderas limitaciones que frenan la acumulación ampliada del capital y que reflejan las nuevas explotaciones que entonces empiezan a surgir y que serán combatidas de forma blanda por el reformismo y de forma radical por el independentismo socialista: la explotación patriarcal. Hablamos de los feminismos burgueses y de la lucha socialista por la emancipación de la mujer, y de aquí en delante de los reformismos ecologistas versus lo que ahora se llama eco-comunismo; de la lucha contra las drogas como arma de exterminio dirigida por los ocupantes; de la lucha por el deporte popular vasco; de la lucha proamnistía y en defensa de las libertades; de la impresionante fuerza creativa y crítica del bertsolarismo y de la autoorganización de las ikastolas con su pedagogía popular y progresista; de la solidaridad internacionalista y antiimperialista; de lucha contra el racismo... y así un casi inacabable etcétera.

Nos estamos refiriendo ni más ni menos a lo que debiera ser ahora el movimiento popular, una de las claves de los impresionantes logros de la izquierda abertzale, logros denostados e ignorados por el dogmatismo miope de algunos revolucionarios que se dicen comunistas. Hablamos también del papel que debe realizar el sindicalismo sociopolítico de liberación nacional, fortaleciendo en el proletariado la conciencia socialista de lucha radical contra el capitalismo y a favor del Estado Socialista Vasco. Tampoco olvidamos el contenido radical de la amnistía, ni el papel de la organización revolucionaria de vanguardia necesaria contra el imperialismo actual.

Y cinco, durante estos tiempos han habido muchos cambios mundiales profundos, pero el capitalismo sigue siendo esencialmente el mismo, con más contradicciones y más ferocidad,

pero fundamentalmente el mismo. La explotación imperialista se ha extendido e intensificado, pero a la vez está encontrando resistencias y alternativas cada vez más serias y prometedoras, tanto que se multiplica la violencia imperialista contra ellas. Debemos imbricar nuestro independentismo socialista en esta resistencia multicolor que no para de crecer.

Nos queda mucho camino por delante, pero mejoramos y avanzamos aprendiendo las lecciones de este ciclo político-electoral, que en síntesis podemos resumirlas en aquella expresión de Aurrera bolie!

24 de julio de 2024
www.boltxe.eus

<https://eh.lahaine.org/eus-esp-lecciones-del-ciclo>